Kultura zinegotzi J.L. Sabas eta Bilboko Alondegiko zuzendari L. Fernandez, artistekin. M.RAMÍREZ | ARGAZKI PRESS

Hasia da «3, 2, 1» jaialdia: forma eszeniko berrien nazioarteko topaketaren bigarren edizioa

Bilboko Alondegiak hartu zuen atzo arte eszenikoetako sortzaile garaikideei begira antolatutako egitasmoa. Jardunaldiaren izena zenbaki joko bat da, atzean formatu berezi bat duena: hiru edizio, hiru urte, amaiera bat.

GARA | **BILBO**

Atzo hasi zen Bilboko Alondegian "3,2,1", maiatzaren 31n bukatuko den arte eszenikoen era berrien nazioarteko topaketa, sortzaile garaikideei begira prestatutako egitasmoa eta gune kultural honen zuzeneko arteen programazioaren barruan kokatuta dagoena.

Jardunaldiaren izena zenbaki joko bat da, atzean formatu berezi bat duena: hiru edizio, hiru urte, amaiera bat. Betikotzeko asmorik ez duen zikloaren dembora zehazteko da formatu hori. 3 (2013), 2 (2014) eta 1 (2015) edizioetan, zikloa jaio, esperimentatu eta hilko da.

"3,2,1" honetan zenbait proposamen artistiko elkartzen dira, gaur egungo performancearen, dantzaren eta antzerkiaren inguruko molde berrituarekin. Elkarren artean eta bestelako arteekin lotzen diren hiru diziplina hauek beste era batera planteatzen dituzte hainbat gai, ikuspuntu eta sinergia.

Sentsibilitate ezberdinetako sortzaileek espazio berberetan eguneroko kontzeptuen ikuspegi eta berrikusketak proposatuko dituzte. Artean, zuzeneko artean, une zehatz batean soilik ikus daitekeen horretan, finkatzen dute begirada, eta hori esperientzia bihurtuko da publikoarentzat. Helburua esperimentatzea, berritzea, kritiko izatea eta antzeztea da.

Morauk emango dio hasiera gaur Gaztelupe tabernako «Ene uste makalean» zikloari

A.H. | **BILBO**

Andoni Tolosa, *Morau*, musikari eta GARAren kolaboratzaileak gaur, 19.30ean, eskainiko duen "Euskal kantagintza berriaren historia laburra" hitzaldi kantatuak emango dio hasiera Soraluzeko Gaztelupe tabernak antolatutako "Ene uste makalean" zikloari. «Euskara, musika, literatura edota beste gai orokor eta ez hain orokorren gainean» jardutea du helburu zikloak.

Astearte iluntzean izango dira saioak eta gonbidatu bat izango dute bere esperientziak azal ditzan eta horien gainean aritzeko. Hitzaldiak izango dira batzuetan eta liburu edo diskoen aurkezpenak besteetan; testuen irakurraldiak edota horien inguruko solasaldiak ere egingo dituzte.

Hitzaldi kantatua

Morauk berak azaltzen du hitzaldiaren edukia zertan datzan: «Alde batetik, euskal kantagintza berria mundu mailan izan zen prozesu baten barruan kokatu behar da. Azken batean, bazen herri musika gaurkotzearen nolabaiteko gogo eta intentzio bat. Fenomeno hau izan zen Hego Amerikan eta gero iritsi zen Europako hegoaldera. Euskal Herrira bide bi horietatik heldu zen, batez ere, Kataluniatik, Nova Canço eta El Set Judges mugimendu garrantzitsu haren bidez.

1961-1990 epealdiaren berri ematen duen ikuskizunari dagokionez, hauxe kontatzen du musikariak: «Elementu asko nahasten dituen multimedia muntaketa da: alde batetik, ikusi eta entzun egingo ditugu kantuak, bideoetan zein audioetan; garaiko lekukotasunak jaso ahal izango ditugu. Era berean, entzulea kokatze aldera, nik ere azalpenak emango ditut eta ahaleginduko naiz jendeak ere bere ekarpenak eginez parte har dezan».

Londresetik abiatuko da euskal bideo-artea erakusgai duen «Gaur (sic)»

GARA | **DONOSTIA**

Etxepare Euskal Institutuak bultzatuta, eta Nekane Aranburuk egindako ikerketa lanaren ondorioz, egun Euskal Herrian bideo artearen alorreko zortzi euskal artista eta talderen lanak biltzen dituen erakusketa sortu da: "Gaur (sic)". Egitasmoa nazioarte mailan erakusteko asmoz egina da eta ibiltaria izango da. Horrela, zortzi estatutan ikusi ahal izango dute. Lehen hitzordua Londresen izango da, ekainaren 12an, Pinta London ekimenaren baitan. Segidan, eta 2015eko otsailera arte, erakusketak nazioartean bidaiatzen jarraituko du eta tokiotan izango da ikusgai Espainiako Garapenerako Nazioarteko Kooperazio Agentziak hiri horietan dituen kulturguneei esker: Tegucigalpa (Honduras), San Jose (Costa Rica), Mexico Hiria, Montevideo (Uruguai), Cordoba (Argentina), Santiago (Txile) eta Managua (Nikaragua).

Euskal arte garaikidea nazioartean ezagutarazteko asmoz jarri zuen abian 2011 "Gaur (sic)" Etxepare Euskal Institutuak. Bideo formatuko lan bilduma ibiltari batean gorpuztu den ikerkuntza lana da, Nekane Aranburuk zuzendutakoa.

Horrela, azken hautaketak zortzi sorkuntza proposamen ditu ardatz: Sra. Polaroiskaren (Alaitz Arenzana eta Maria Ibarretxe) "Pilota Girls", Colombina's taldearen (Larraitz Torres eta Sandra Cuesta) "Hacia la luz y los vegetales", Aitor Lajarinen "Postcity", Zuhar Iruretagoienaren "Vexations", Iratxe Jaio eta Klaas van Gorkumen "Working progress", Saioa Olmoren "Hamaika", Juan Aizpitarteren "Gen" eta Ixone Sadabaren "Shipwreck With Spectator (Naufragio con Espectador)".

Atzo, Donostian egindako aurkezpenean azaldu zutenez, erakusketak bat egiten du Nekane Aranburuk azken urteotan egin dituen ikerketekin. Horiek bi lerro nagusi dituzte: Estatu espainoleko bideo artearen analisia eta bilakaera, batetik; eta lan horiek ikusarazteko eta zabaltzeko tresnak, bestetik. Ikerketa berri hau gauzatzeko erabilitako metodologiari dagokionez, material berri edo ia amaituaren eskaneatzea izan da lanaren abiapuntua, gai nagusiarekin lotura bilatuz eta koherentzia landuz.

"Gaur (sic)" ez da soilik «sormen lan nabarmenenak gorpuztu edota belaunaldien arteko erakusketa diagnostikoa egin nahi duen gaur egungo artearen ikuspegiaren lagina. Egungo euskal sorkuntzaren egoera ezagutzera ematea ere badu helburu, arte garaikidearen genealogiaren testuinguruan eta ikuspuntu formalistaz eta bertikalaz harago; egungo egoeraren berrikusketa egin nahi du egitasmoak, edukietan, irudien osaketan eta nazio zein nazioarteko ekoizpen ereduetan izan den bira nabarmenduz», azaldu zuten Aizpea Goenaga Etxepare Euskal Institutuko zuzendariak eta Nekane Aranburu erakusketaren komisarioak.

Erakusketak hiru ardatz nabarmendu nahi ditu: emakumeen lanen indarra, taldean egindako lanen ugaritasuna eta diziplinarteko saltoa ezartzea.

Goenaga eta Aranburu, zenbait artistak lagunduta. J.C. RUIZ | AR. PRESS